



Domingo Gorringo pirata

altxorra: balio handiko gauza.

Mundu guziak Domingo Gorringo deitzen du. Domingo Gorringo pirata da.

Oihal beltz batek estaltzen dio begia eta zurezko zango bat dauka.

Baina Domingo Gorringo ez da gaixtoa: nehor ez du iziarazten.

Neska-mutilek oihu egiten diote:

– Domingo Gorringo! Non duzu ezpata?

– Domingo Gorringo! Non duzu **altxorra**?

Baina Domingo Gorringo ez da kexatzen.

Baiki, Domingo Goringok badu altxor bat, han, urruneko uhar-te batean gordea. Baina... Baina... itsasontzirik ez du Domingo Goringok.

– Nola egin nezake urruneko uhartera joaiteko ene altxorren bila? – dio bere baitan.

Egun batez, kapitain bat hurbildu zitzaion :

15 – Domingo Goringo! Nik badut itsasontzi bat. Nahi baduzu, elkarrekin joan gara zure altxorren bila, urruneko uhartera.

Domingo Goringori ideia zinez gustatu zitzaion. Berehala, belaontzi eder batean abiatu ziren biak.

Egunak eta egunak iragan zituzten itsaso handi zabalean.

20 Haizeak emeki-emeki bultzatzen zuen belaontzi ederra.

Azkenean, uhartera heldu ziren. Pala hartu eta lurrian miatzen hasi zen karraskan Domingo Goringo. Zilo handi bat egin zuen eta han neke handirik gabe altxorra aurkitu.

25 Altzorreko urreria puska bat eta **bitxi** zenbait kapitainari eman zizkion Domingo Goringok.

– Milesker Kapitaina ni lagundurik!

Altzorreko perlak saldu zituen eta diruarekin itsasontzi eder bat erosi.

30 Dirurik aski bazuen oraino Domingo Goringok bixkotxen eta goxokien erosteko. Gogotik eskaini zizkien herriko neska-mutilei.

bitxi: balio handiko apaingarri.

Erein argitaletxeko *Txalo pin txalo* liburutik egokitua.



① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nor da Domingo Gorringo?
- Gaixtoa ote da? Haserretzen ote da?
- Nolakoak ditu zangoak? Eta begiak?
- Non du altxorra?
- Nola eskuratzen du?
- Altxorraz zer egiten du?

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Hitz hauek, bi salbu, gai berezi bati doazkio. Denak berridatz itzazu eta errazu zein gai pentsatzen duzun. Gaiari ez doazkionak ingura.

belaontzia

txirla

uhina

itsasontzia

itsasoa

kaia

baloia

itsasargia

uhartea

aingura

orrazea

txalupa

► Erranaldi hauek hitz aurkariez osa itzazu.

Uhartea urrun da.

Itsaso handi bat.

Belaontzi ederra.

Ezpata lodi hori.

Uhartea hurbil da.

Itsaso

Belaontzi

Ezpata

► Erranaldi hauek ezezkoan berridatz.

Gorringok itsasontzia badu.

Gorringok altxorra badu.

Gorringok urrea eman zuen.

Nik belaontzia erosi dut.

Arrantzaleak bertsoak kantatu zituen.

Gorringok itsasontzirik ez du.

.....

.....

.....

.....